

# SANTUA

# A S T I E

*Aste Santua zer da?  
Illun eta argia.  
Jesus'en nekc-miñen  
gomuta bizia.  
Maitasunaren ordaiñ  
Gurutzan josia.  
Olan edegi euskun  
zeruko atia.*

*Aste Santua zer da?  
Geure bizitza:  
Erramu domekea  
gure jaiotzea,  
dana palagu eta  
zorion ezta...  
Gero etorriko da  
negar egitia.*

*Aste Santua zer da?  
Zera: Garaipena.  
Judear maltzur arein  
c.mets ederrera:  
Igarleari emon  
dautse nai ebena,  
gizon donge balitz lez  
Gurutzan azkena.*

*Beste munduen ate  
da eriotzia.  
Orduntxe amaitzen da  
gure dirutzia,  
eskean ibiltia  
eta agintzia...  
«Orrek ez dau ezartu  
ondiño lotsia».*

Damaso, C. P.

*Aste Santua zer dan?  
Oixe: Garaipena.  
Jaungoikoak bakarrik  
egiñ al leikena,  
bere odolarekin  
garbitu obena,  
olan ordaindu euskun  
zorrik astunena.*

*Aste Santua zer dan?  
Asmau al guztia.  
Gizon arro hatzuen  
garaipen larria...  
Jaunaren maitetasun  
zeru-iturria...  
Gure bizitzearen  
iduri argia...*